



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA



GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO EREMUEN IKERKETA MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Beharrak gero eta nabariagoak dira gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzearen hainbat esparrutan, hala nola kulturartekotasunean, hezkuntza inklusioan, familian, haurtzaroan edo etorkin populazioetan, besteak beste, eta hausnarketa prozesu bat eskatzen dute, zeinetan hezkuntza ikerketak lagundu baitezake. Era horretara, honakoak lor daitezke: esku hartzeko praktikak eta lanbide heziketa hobetzea eta gizarte eta hezkuntza errealitatea hobeto ezagutzea.

Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa masterrak pedagogia, psikopedagogia, gizarte hezkuntza eta gizarte eta hezkuntza arloko beste diziplina batzuetako profesionalak prestatzen ditu ezagutza zientifiko berria sortzeko giza eskubideen, oinarriko askatasunen, genero berdintasunaren, irigarritasunaren eta balio demokratikoen esparruan.

SARBIDEA

Lehenetasuna emango zaie Pedagogia, Gizarte Hezkuntza eta Magisteritza tituluei. Sarbidea izango dute, baita ere, titulazio hauetako ikasleek: Gizarte- eta Zuzenbide-Zientziak, Giza Zientziak edo hezkuntza ikerketan interesa duten beste batzuek.

IRTEERA PROFESIONALAK

Aholkularitza eta prestakuntza enpresak, hirugarren sektoreko elkarteak, aholkularitza ematea, esparruetako txosten bereziak egitea edota testuinguruko diagnostiko espezifikoak eraikitzea eskatzen duten lanpostu profesionalak. Sektore publikoko hezkuntzako aditu lanpostuak. Doktorego tesia egitea euskal unibertsitate sistemako irakasle-ikertzailea izateko xedez. Ekintzailetza eta enpresak sortzea hezkuntzaren esparruan.

OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (Donostia).

Irakaskuntza mota:

Mistoa.

Hizkuntza:

Euskara eta gaztelania.*

Gutxi gorabeherako prezioa:

1.850-2.050 €.

Egutegia:

Irailetik apirilera, arratsaldez.

(* Masterraren hizkuntza planteamendua elebiduna da. Irakasteko hizkuntza gaztelania izango da, eta erabilera akademikorako hizkuntzak, berriz, euskara eta gaztelania, betiere ikasleen lehenetasunak kontuan hartuta.

IRAKASTORDUAK/IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1 (urte batean edo bitan egin daiteke)

Nahitaezko
Gaiak

18 ECTS kreditu

Hautazko
Gaiak

30 ECTS kreditu

Proiektuak /
Ikerketa-lanak

12 ECTS kreditu

Guztira

60 ECTS kreditu

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

Ikerketako irakasgai metodologikoak:

- Gizarte eta hezkuntza ikerketarako metodo eta teknika aurreratua
- Datu kuantitatiboan analisi gizarte eta hezkuntza ikerketetan
- Gizarte eta hezkuntza esku-hartze programetarako neurketa tresnen ebaluazioa
- Ikerketaren diseinua eta ikerketarako teknika
- Datuen analisi kualitatiboa gizarte eta hezkuntza ikerketetan (EP)
- Testu profesionalak eta zientifikoak idaztea eta sortzea (EP)
- Oroimena eta Historia- eta Hezkuntza- ondarea Euskal Herrian (EP)

Esku hartzeko irakasgai metodologikoak:

- Ikerketa/ekintza (I/E) gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzean (EP)
- Sormena eta gizarte eta hezkuntza prozesuen bideratzea (EP)
- Gatazken ebazpena pedagogiaren ikusmiratik (EP)

Irakasgai tematikoak:

- Haurren eskubideak eta hezkuntza
- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea hurrekin eta nerabeekin (EP)
- Familia orientaziorako ikerkuntza (EP)
- Programa kulturantzaren garapenerako ikerketa eta orientazioa
- Kulturarteko hezkuntzarako teoriak eta praktikak
- Gizarte eta hezkuntza inklusioa
- Gizarte ekintzarako erakundeak eta programak
- Bazterketa eta gaitasun digitala: IKTen aukerak eta arriskuak
- Berdintasuna eta generoa (EP)
- Ezintasunaren ikuspegi berriak (EP)

Master Amaierako Lana

*EP: erdipresentziala

HARREMANETARAKO

Arduraduna: Idoia Fernández Fernández

Posta elektronikoa:

idoia.fernandez@ehu.eus

Idazkaritza:

Posta elektronikoa:

hefa.masterrak@ehu.eus

Tel.: 943018688

